

IRITZIA

"El reto para la normalización del euskera consiste en conseguir su utilización fuera de las aulas". Palabras de la Sra. Josiane Hamers, profesora de Psicolingüística de la Universidad Canadiense de Laval, que asiste estos días en Gasteiz a las IV jornadas internacionales de educación plurilingüe.

Euskeraren etorkizuna Euskalerrian, noren gain dago?

Gure arbasoek antxinatik emandako ondasuna degu daukagun izkuntza; bere bitartez, naiz eta atzerritar erri batzuk gu iruntzi bearrean ibili, erri lez iraun degu.

Zoritxarrez, oiek naikoa ez dirala ta, gure arteko gizakume zentzunbako, ergel, edo maltzur batzuk, gure izkuntza bazterturik, arrotasunez, erdera artzen dute aundikiro agertu nairik.

Gaur egun asko dira esnatzen ari diranak eta beren aurtxoak euskera ikasi dezaten ikastoletara bialtzen dituztenak, orregaz naikoa egiten dutelakoan, ge. Dago arduratu gabe, bañan ori ez da naikoa.

Euskera laguntza geiagoren bearrean aurkitzen da eta emen doa nire galdera: zugaitz landaratxoak leku arrizkutxoetan landakeran, orpo inguruan tantai bat sartzen zaie zugaitza apurtu edo okertu ez dedin.

Gurasoak, ikastotetako irakasle andereñoek eta gure Erria maite degun guziak daukagu eginkizuna ortan, tantai oien egin bearra.

Erakutsi bearrean gera baita ere, guré izkuntzaganako maitasuna, Ama maite izaten dan bezela malta, goraldtu eta erabili dezaten gure izkuntza. Nola? GUK ERABILIAZ!!

Lotsagarria da Zornotzako erri baten, zearo euskaldun eta euskotar bear lukenean, ain euskera gitxi entzutea.

Euskera eta Erria bizirik atara nai badogu, euskeraz ikasiz zabaldu bearra daukagu. Garia kutxan gordeta ez da geitzen, lurrean zabaldu egin bear da uzta ugaria izan dezan.

Gazte zeratenak eta sasoi onekoak, artu gogoan itz oneik eta euskera dakizutenok erabili gogoz eta agertu euskera erabiliz, gure Euskalerriarenganako maitasuna: horrela bizi izango da beti gure sorterrria.

Ilari Artolabal´ek irakurrita - Urte asko Bizkaian - Ilari´k idatzitakoa